

Mailegu zerbitzua

Arauk

Bazkide izaera

- ◆ Zerbitzu hau erabili ahal izateko nahitaezkoa da liburutegiko txartela izatea, hau da, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi bateko bazkide izatea
- ◆ Bazkide izaerak mailegu zerbitzua erabiltzeko aukera ematen du: gure liburutegiko mailegu zerbitzua, liburutegi sareko gainerako liburutegietako mailegu zerbitzua, liburutegi arteko mailegua, eta baita, eLiburutegiko mailegu zerbitzua ere

Bazkide txartela



Gurean gain, liburutegi sareko gainerako liburutegietan erabilgarria

- ◆ Bazkide txartela lortzeko [inprimakia bete](#) eta zure liburutegira eraman dezakezu; liburutegian bertan ere bete dezakezu inprimakia. 16 urtetik gorakoen kasuan guraso edo tutore legal batek bete behar du
- ◆ Mailegua pertsonala da, hau da, mailegu-txartelaren jabeari egiten zaio eta ez beste lagun edota senitartekoei

Maileguak

- ◆ Maileguan hartu daitezkeen dokumentuen kopurua eta epeak:
 - Mailegu pertsonala
 - 3 liburu (21 egun)
 - 1 DVD (7 egun)
 - 1 aldizkari (7 egun)
 - 1 CD (7 egun)
 - Mailegu kolektiboa: elkarte edota taldeentzako mailegua da
 - 10 liburu (30 egun)
 - 2 DVD (14 egun)
 - 2 aldizkari (14 egun)
 - 2 CD (14 egun)
- ◆ Liburutegi arteko mailegua (LAM): gure liburutegian ez ditugun dokumentuak bestelako liburutegietan eskatu ditzakegu. Eskuera hauek liburutegiak tramitatzen ditu
 - 2 eskaera aldiko (3 aste)
 - Maileguen luzapen bakarria egin ahal izango da, dokumentuok erreserbarik ez badaukate
- ◆ Berriztapena, liburutegira etorrira, telefonoz edo internet bidez egin daiteke. LAM bidez ekarritako dokumentuetan luzapena egiteko aukera kasu bakoitzean aztertu beharko da

Mailegu zerbitzua



Gure liburutegiko aleez gain, gainerako liburutegietako aleak maileguan hartzeko aukera

	Kopurua	Epea	Berritzea	Erreserba
Liburuak	3	21 egun	Bai*	Bai
Aldizkariak eta DVDak	3	7 egun	Ez	Ez
Liburutegi arteko mailegua	3	Materialaren arabera		Ez

*erreserbarik ez badauka

- ◆ Dokumentu gehienak dira mailegagarriak, ala ez den kasuetan dokumentuetan bertan zehaztuko da
- ◆ Mailegatzan ez diren dokumentuak:
 - Erreferentziazko lanak
 - Azken hilabeteko aldizkarien aleak
 - Interes historiko edo bibliografikoa duten obrak
 - Ezaugarri tekniko edo fisikoak direla-eta liburutegiak zaindu nahi dituenak

Itzulketak

- ◆ Liburuak dokumentuan adierazitako epea baino beranduago itzultzen badira, hartzaileak atzerapen egun bakoitzeko beste egun bateko ezgaikuntza-zigorra jasoko du (hau da, ezin izango duela dokumenturik atera beste horrenbeste denboraz)
- ◆ Liburuaren itzulketak, hartzaileak berak aukera ez izatekotan, beste lagun baten bidez egin liteke, baita mailegu itzulketarako buzoian ere

Mailegu itzulketarako gunea



Kaleko atearen ondoko edukointzia

Edozein unetan maileguak itzultzeko

- ◆ Dokumentuak itzultzeko epea amaitu ondoren ez badira itzuli, idatzi bat bidaliko da eramandako dokumentuak itzultzeko eskatuz eta itzuli ezean irakurle gisa behin-behineko baja emango zaiola ohartaraziko zaio, hau da, ezin izango du liburutegia erabili dokumentuak itzuli arte
- ◆ Ez bada dokumentua itzultzen, betiko baja emango zaio eta udalak erabakitako ekintzak abiaraziko dira dokumentu horiek itzul daitezzen

Dokumentuen ordezkatzea

- ◆ Dokumentua galdu edo apurtuz gero, hartzaileak berria erosi beharko du
- ◆ Dokumentu bera lortzea ezinezkoa izango balitz liburutegiko arduradunak zehaztuko lioke ezaugarri antzerakoak dituen beste zein dokumentu erosi behar duen

Erreserbak

- ◆ Erabiltzaile bakoitzak bi dokumentu erreserbatu ahal izango ditu aldi berean
- ◆ Sistemak automatikoki helarazten dio erabiltzaileari erreserbatutako alea eskuragarri dagoela. Liburutegitik, telefonoz, WhatsAppez edo Telegram bidez ere jakinarazio ahal izango da
- ◆ Abisua jaso ondoren irakurleak 3 eguneko epea izango du gehienez liburua jasotzeko. Epe horretatik kanpo, liburua erreserba zerrendako hurrengo irakurleari egokituko zaio eta inor ez balego, beste erabiltzaileentzat eskuragarri jarriko da
- ◆ OPAC erabilia erreserbak internet bidez egin daitezke



Astelehenetik ostegunera 16:30-20:00

Ostiral eta jai bezperetan 14:30-17:30

 **943788012**   **688729603**

 **elgetakoliburutegia@elgeta.eus**

 **<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/elgeta>**

  **<https://t.me/elgetakoliburutegia>**